



TREBAKUNTZA 2012/01: HELBIDEAK

Udal idazki askotan helbideak oker idatzita ikusi ditugu. Helbideak behar bezala idazten hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Francisco Macía Kalea 3, 11.a*
2. **San Inazio etorbidea, 2, 4. A.*
3. **San Kristobal pasealekua 1, 2.*
4. **Donibane enparantza, z/g*
5. **Etxebeste plaza, 7, 3-B*
6. **Estafeta kalea 8tik abiatzen da autobusa.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Izen propioak maiuskulaz jarri behar dira eta arruntak minuskulaz
Ad. Francisco Macía **kalea** 3, 11.a
San Juan **plaza** 5
2. IVAPen gomendioen arabera, toki izenaren eta zenbakiaren artean ez da komarik jarri behar; bai, ordea, Euskaltzaindiaren arabera.
Ad. San Inazio etorbidea **2** (IVAPen arabera)
San Inazio etorbidea, **2** (Euskaltzaindiaren arabera)
3. Helbidearen zenbakiaren eta solairuaren zenbakiaren artean ez da gidoia erabili behar, koma baizik.

Ad. San Kristobal pasealekua 1, **2**. A

OHARRA: “-2. A” zero azpitik bigarren solairua da.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

4. Laburdurak honela idatzi behar dira:

- Zenbaki gabe (z.g./zk.g.)

Ad. Donibane enparantza **z.g.** (IVAPen arabera)

Ad. Donibane enparantza **zk.g.** (Euskaltzaindiaren arabera)

- Ezkerra (ezk.)/eskuma (esk.).

Ad. Txinparta enparantza 8, 2. **ezk.**

Zumalakarregi etorbidea 13, 2. **esk.**

- Kalea (k.), etorbidea (etorb.), plaza (pl.), pasealekua (pas.),
industrialdea (ind.), poligonoa (pol.), baserria (bas.).

Ad. Estafeta **k.** 8

Etxebeste **pl.** 7, 3. B

(...)

5. Kontuz! Ez da gauza bera 4.A eta 4.a

4.a [laugarren solairuan bizi da]

4. A [laugarren solairuan bizi da, A letran]

6.- Ez da laburdurarik erabili behar helbideak esaldi barruan txertatzean:

Ad. Estafeta **kaleko 8tik** abiatzen da autobusa.

Etxebeste **plazako 7ra** iritsi zen taxia.

Sua dago Askatasunaren **etorbidean, 12an.** / Sua dago **Askatasunaren etorbideko 12an.**

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrena arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99